

2017-04-25ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2017ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: inor ez.

M^a Jesús Olano Zubeldia Udaleko administrariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2017-03-28).

2017ko martxoaren 25eko aktaren zirriborroa aurkeztu da.
Akta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2017/53 DEKRETUTIK 2017/67 DEKRETURA ARTE.

Alkateak 2017/53 dekretutik 2017/67 dekretura artekoen berri eman dio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dituzte:

a) Ainhoa Ugalde zinegotziak udalaren iritzia jakin nahi du hondakinen bilketari buruz, bizilagunek ez dutelako ondo egiten, batik bat, organikoa eta errefusarena.

Alkateak erantzun du, ados daudela, Mankomunitateak bilera antolatu duela eta Jesús M^a Alonso zinegotzia joango dela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak esan du kontenedore marroiak itxita egon behar duela.

Alkateak erantzun du ez dela arazoa konpontzen marroia itxita bakarrik, errefusarenak ere itxita egon behar duela. Irekita dagoenean gaizki egiten duenak, itxita dagoenean ere berdin egingo duela, eta saiatu behar garela herritarrak kontzientziatzen, ondo egin dezaten.

Olaia Nieto zinegotziak azpimarratu du ondo egin behar dela.

Alkateak erantzun du beste inguruko herrietan ere kontenedoreak jarri direla, albiste onak direla, eta ea denon artean gehiago birziklatzen dugun.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du organikoko inpropioak % 5etik gora direla, eta alkateak erantzun du baietz, baina azkeneko neurketen emaitzak hau eman zuela: %6,34 - %6,66; baina kamioiak Tolosa eta Irurako bilketa zeukala.

Ainhoa Ugalde zinegotziak proposatu du “organiko” eta “errefusa” kontenedoreak kontrolpean jartzea.

b) Ainhoa Ugalde zinegotziak azaldu du, behin eta berriz, BXSport enpresaren zerbitzua “desastre” izaten jarraitzen duela.

Alkateak erantzun du, udaleko kultur teknikaria beste enpresa batzuekin jarri dela harremanetan, eta ez dakiela oraindik ze proposamen ekarriko duten.

c) Olaia Nieto zinegotziak galdetu du euskarako gastuaren gaia nola dagoen.

Alkateak erantzun du datorren ostegunean, apirilaren 27an, batzordea dagoela.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:40ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA